

## ZENBAKIAK

**52.115 euro erdarazko komunikabideentzako**

Iazko deialdiaren alderdi azpimarragarrienetako a izan zen, diruaren banaketa eza-gutu zenetik, erdarazko komunikabideek jasotako diru laguntzak, aurreko urteetakoekin alderatuta hirukoiztu egin baitziren. Bereziki deigarria izan zen, gainera, Nafarroako kazetarik handienari, *Diario de Navarra*-ri alegia, eman zitzaion diru laguntza handia: 31.276; emandako guztien artean hirugarrena, *Ttapi-ttapa* aldizkariak eta Euskalerrria Irratiak jasotakoaren ondotik. Banaketa eza-gutu eta gero euskal hedabideek manifestua kalera-tu zuten.

rengatik sortu zen. Hasteko, aurreko urteetan baino franko beranduago kaleratu zuen Hizkuntza Politikak bere deialdiaren nondik norakoa.

Aldaketa esanguratsu bat izan zen: 1990etik lehen aldiz, deialditik kanpo gelditu zen euskarazko eguneroko prentsa: EGUNKARIA. Halaber, erdarazko komunikabideentzako aukera berria zabaltzen zen.

Urriaren 31ko ebazpenean zuzendaritzako teknikari eta goi karguek osatutako epaimahaiak erabaki zuen EGUNKARIA-ko *Nafarkaria* gehigarria kanpoan uztea, eta *Diario de Navarra* kazetak argitaratzen duen *Nafar Izkuntza* orriari 31.586 euroko diru laguntza onartzea. Laguntzarik handienetako a, alegia.

EGUNKARIAK kaleratutako informazioaren ondorioz —bertan hainbat irregulartasun salatzen ziren deialdian, eskaera epez kanpo aurkeztuta eta teknikarien txostenaren iritziaren kontra izanda ere, azkenean *Diario de Navarra*-ri eman zitzaiolako laguntza—, Batasunak eta EA/EAJk Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariaren eta Pedro Pegenauteren beraren agerraldia eskatu zuten.

Maiatzaren 15ean Parlamentuan emandako azalpenak entzun eta gero erabaki zuen Batasunak prebikazioarengatik kereila jartzea.



DIARIO DE NOTICIAS

Foruzainek atxilotutako hamahiru lagunetako zenbait, Belosoko kuartelera eramateko furgonetan igotzen ari ziren unean.

## Foruzainek LABeko 13 kide atxilotu dituzte kartel elebidunak jartzeagatik

### Hizkuntza Politikako zuzendaritzan ekintza sindikala egiten ziharduten denek

A.B. | IRUÑEA

Foruzaingoak LABeko hamahiru kide atxilo hartu zituen atzo Hizkuntza Politikarako zuzendaritza nagusiaren egoitzan, Funtzio Publikorako Nafarroako Institutuan, bertako errotuluen gainean afixa elebidunak jartzen ari zirela.

Foruzainek, Nafarroako Barne Departamentua prestatzen ari den unitate berezikoak, dokumentazioa eskatu zieten sindikalistei eta hauen ezetzaren aurrean, atxiki zituzten eraikin nagusiaren atarian, eta Belosoko kuartelera eraman zituzten.

Bertan denen nortasunak hartu eta eguerdiak ordu bata zuela, libre utzi zituzten hamahiruak.

Foruzaingoak autoritateari men ez egitea eta desordena publikoa leporatzen die.

#### Hizkuntza Politikan elebitasuna aldarrikatzen

Ekintza LAB-Administrazioak deitua zuen hain zuzen ere kartel elebidunak kentzen lehena izan zen administrazioan, Hizkuntza Politikako erai-kinean, errotulu elebidunak jartzeko.

Sindikatu honek berak irailaren 27an idatzia helarazi zion Pedro Pegenauteri 2000ko abenduko dekretua epaileek baliogabetua zutela gogoratuz, eta, beraz, «indarrean dagoen araudia aplikatzen hasteko» eskatuz.

Inolako erantzunik jaso ez eta atzo kartelak bere kabuz

jartzeko ekintza antolatua zuen sindikatuak.

Ordezkariek goizeko 10:00etan agertu eta kartelak itsasteari ekin zioten. Elastiko gorri jantzita, erdara hutsez zeuden errotulu guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jartzen hasi ziren.

Oraindik lehen solairuan zeudela, Pedro Pegenaute bera agertu zen ataritik, kaltetik zetorrela. Harridura aurpegiak ekintzaileak begiratu eta atzera egin zuen. Beste pasabide batetik sartu zen bere bulegora, ekintzaileak saihestuz.

#### «Hori ezin duzue egin, eraikin publikoa da»

Bitartean, eta bulegarietako abisatuta, Jesus Ramon Loitegi Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea LABeko kideekin zen jada.

«Hori ezin duzue egin, hau eraikin publikoa da eta...».

«Eta hau ekintza sindikala, eskubidea dugu. Gainera, erretiratutako kartelak jartzen ari gara berriro». «Bada abisua eman beharko dut». «Eman, ba».

Goian, hitzetatik eskuetara ia. Zuzendariaren beraren bulegoan tirabirak, eta kartelak lurretik, amorrut zatikatuta. Zuzendariak eta bere bulegariak zatikatuta.

Atarian, ekintza bukatuta, foruzainak. Ezin da atera. Identifikatzeko. Ekintzaileek ez dute nahi. Deitu diote Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari, kontuan hartzeko ekintza sindikala egiten ari zirela eta... Eta? «Foruzainei men egiteko».

Ordubetez atxilotuta, «bahituta ia», batek zioen bezala, iritsi da laguntza: atxilotuak eramateko furgoneta. Banaban sartu eta eraman dituzte kuartel nagusira. Kartel elebidunak jartzeagatik.

### POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA

Roman Sudepek Batzar Nagusien aurrean egindako mintzaldia



Dokumentu osoa kontsultagai

[www.romansudepe.net](http://www.romansudepe.net)



UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA  
CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

• Urrutiko Hezkuntza Unibertsitatea •

### HIZKUNTZEN URRUTIKO IKASKETEN 2. MAILARAKO SARRERA FROGA DEIALDIA

Hizkuntzen Urrutiko Unibertsitate-ikastetxeak (HUUI) euskara, ingelera, frantsesa eta alemaniera ikasteko sarrera froga deialdia egin du. Froga hau lehen maila egin gabe bigarren maila egin nahi dutenentzako zuzendua dago.

**Froga hau egin ahal izateko aurretik izena eman beharra dago !!**

HUUI EGITEKO SARRERA FROGA  
Urriak 10, osteguna  
19:00 etan  
BERGARAKO UNED  
San Martín Enperantza z/g (Bergara)



Informazioa  
tlf- 943 76 90 33  
info@bergara.uned.es  
[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)